



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 28a

125. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren etorkizuneko garapen ekonomikorako proiektu global gisa har dezan Nafarroako Ubidea. María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da untxi hazkuntzaren sektoreari buruzko lanmahai bat premiaz sor dezan. Luis Casado Oliver jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erakunde sindikalekin eta enpresa-sindikalekin adostu dezan 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan. Mónica Domenech Linde andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasleen, ikastetxeen, auzoen eta Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen beharrei atxiki diezaien Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak finkatzeko eta banatzeko beharrezkoa den politika. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, ETak behin betiko su etena iragarri zueneko 5. urteurrenaren karietara. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETA banda terroristak 40 urtean zehar egindako hilketak, zaurituak, bahiketak eta estortsioak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Albak atzerritarren internamendu-zentroei buruz egindako adierazpenak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren eta legea garatzen duten arau guztien aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hizkuntza politikari dagokionez programa-akordioan jasotzen den toki entitateekiko lankidetzahitzarmenari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bere irudi korporatiboan, komunikazioetan, seinaleketan eta dokumentuetan euskararen presentzia eta erabilera handitzeko egindako urratsei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroan enpresa-konfiantzaren indizea jaitsi izanari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, amatasun eta aitatasun baimenen gaineko zenbait neurri Nafarroako legedira eramateko moduari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Martzillako eta Otsagabiko egoitzetako aldi baterako egonaldiko tokiei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeak arrazoiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberara Nafarroako Ubidearen bidez ustez helduko den ur emariari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, iragarri den Familiari laguntzeko planari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (19. or.).
- Galdera, alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean egin nahi den bereizketari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 37/2010 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezesten duen 000203/2011 epaiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, eraikinak eta etxebizitzak zaharbertitzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzkoa. Erantzuteko epea luzatzea (27. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren etorkizuneko garapen ekonomikorako proiektu global gisa har dezan Nafarroako Ubidea.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoaren etorkizuneko garapen ekonomikorako proiektu global gisa har dezan Nafarroako Ubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ura ezinbesteko baliabidea da. Ura ondasun estrategikoa da, eta administrazioen betebeharra da ur erreserbak edukitzea, lurraldearen eta bertako belaunaldien garapenari begira.

Gure erkidegoan Itoitz eta Nafarroako Ubidea dira nafar guztiontzat uraren kontsumoa bermatzen duten obrak, eta funtsezkoak dira garapen ekonomikorako, nekazaritza-elikagaien enpresetan ez ezik, industriaren sektore osoan ere. Itoizko

Urtegia-Nafarroako Ubidea tandemak etorkizuna da, Nafarroaren aurrerabiderako eta lurralde osoaren benetako egituraketarako.

Nafarroako Ubideak badu lege-oinarri bat eta interes publikoko eta erabilgarritasun sozialeko justifikazio bat, Itoizko urtegiaren eta Nafarroako Ubidearen interes orokorra deklaratzeko duen uztailaren 8ko 22/1997 Legearen ondorioz. Gainera, abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeak, 22. xedapen gehigarrian, interes orokorreko deklaratzeko dira, ondorio guztietarako, Nafarroako Ubidea eraikitzeke lanak, baita Ubidearen eraginpeko alde ureztagarrian ureztalurrak sortu edo hobetzeko obrak ere.

Nafarroako Ubidearen proiektua finantzatzeko eta hura egiteko Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Lankidetzahizarmena sinatu zen, 1998ko urriaren 19an.

Bi azpiegitura horien onurak denboran zehar luzatuko dira, zenbait nafar-belaunaldiren mesedetan, zeinek asebeteta izanen baitituzte beren urkontsumoko beharrianak, bai kantitateari bai kalitateari dagokienez.

Proiektu horren zati bat errealitatea da jadanik; ubidearen lehen fasea bukatu da eta 22.000 hektarea ureztatzen ditu. Gero, fase hori zabaldu egin da 15.000 hektareatik gora ureztatu ahal izateko Estellerrian, Ega eta Arga ibaien artean.

Eta Nafarroako Erriberak egitura horren premia du, etorkizunari begira uraren hornidura giza-kontsumorako ez ezik industriaren kontsumorako ere bermatzeko, kalitatearen zein kantitatearen aldetik aski den neurrian; gainera, ekarriko luke ureztaluru bihurtzea lehorreko 21.000 hektarea, eta horrek berme bat eskainiko luke Erriberako jendea landa eremuan geratu ahal izateko.

Ikus daitekeenez, uraren inguruko beharrianak asko dira, eta dakartzan onurak ukaezinak;

nekazaritzako sektorearendako onurez gain, Nafarroako industriako sektore osoarendako onurak ere badira. Gainera herriei edateko uraren hornidura eman behar zaie. Izan ere, Erriberako herri askotan arazoak daude, eta gaur egun bakarrik Nafarroako Ubideak bermatzen ahal du ura nafar guztiengana iristea baldintza beretan. Nafarroatik eta Nafarroarentzat

Proiektu hori, Nafarroako Ubidea, beharrezkoa da gure erkidegoaren garapenerako, ekonomiaren zein lurraldearen aldetik. Horregatik proposatzen dugu etorkizunean haren kudeaketa eta garapena Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako Departamentuaren menpe egotea.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroak Ubidea gure erkidegoaren etorkizuneko garapen ekonomikorako proiektu globalizat har dezan, eta, horren ariora, Nafarroako Ubidearen proiektua Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako Departamentuaren menpe egon dadin.

2. Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Nafarroako Erriberarendako ezinbesteko obratzat aitor dezan, eta era horretan osatu dezan Nafarroako Ubidea, obra estrategiko bat baita, gure erkidegoa egituratzen duena.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: María Carmen Segura

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da untxi hazkuntzaren sektoreari buruzko lan-mahai bat premiaz sor dezan.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita untxi hazkuntzaren sektoreari buruzko lan-mahai bat premiaz sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, Nafarroako Gobernuak untxi

hazkuntzaren sektoreari buruzko lan-mahai bat premiaz sor dezan

Jasandako krisialdi luzeak Espainiako gizarte osoan ukitu nabarmena izan duenak, familien gastuan birdoitze garrantzitsua eragin zuen, eta horren ondorioz elikagaien gastuan ere bai, erosketa saskian funtsezko aldaketa sortuz. Eskaria nabarmen jaitsi zen, eta horren ondorioz prezioak ere bai, gehiegizko eskaintzagatik, abeltzaintzako sektorea krisi sakon batera eramanez.

Nafarroako abeltzaintzan, nola ez, Espainiakoan bezala gertatu behar zen. Hemeroteka kontsultatzen badugu, egiaztatzen ahal dugu nolako egoera pairatu den haragitako ardi-aziendaren sektorean, zerri-aziendaren sektorean, esnearen sektorean eta abarretan. Sektore osoa muturreko egoeran dago, gainerako edozein doikuntzaren aurrean batere maniobra-tarterik gabe.

Untxi-aziendaren sektorea ez zen egoera horretatik aske geratu. Krisiaren eragin gordinena jasan zuen, eta gaur egun areagotzen ari da nazio zein erregio mailan.

– Nazio mailan, batez ere banaketa handiaren prezio-politikagatik, zeinak sektorea itotzen baitu suspertzeko aukera edukiko lukeen urtaroetan, eta, horren ondorioz, salmenta-prezioak ekoizpen-kostuen azpitik geratzen dira.

– Nafarroan gaineratu beharko genuke sektoreak duen pisu espezifiko txikia, hornitzaileei erosteko baldintzak edo bezeroei saltzeko baldintzak hobetzen saiatzerakoan.

Ikuspegi horren aurrean, eta ahalik eta adostasun zabalena bilatzeko administrazioaren eta ukituaren artean, honako erabaki-proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, presako izaerarekin lan-

mahai bat sor dezan Nafarroako untxi-aziendaren sektorearekin, bertan aztertzeke sektoreak dituen arazoak (banaketako bideak hobetzea, berregituraketarako balizko planak, kontsumoa sustatzeko neurriak, neurri fiskalak berrikustea eta hobetzea, untxi-osasuneko programa berrikustea eta hobetzea, lankidetzako hitzarmenak sektoreko entitatekin, Ascuna, Naraba, S. Coop...).

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erakunde sindikalekin eta enpresa-sindikalekin adostu dezan 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erakunde sindikalekin eta enpresa-sindikalekin adostu dezan 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erakunde sindikalekin eta enpresa-sindikalekin adostu dezan 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana.

Europako demokrazia aurreratuek bereizgarri dute, besteak beste, elkarrizketa sozial iraunkorra instituzionalizatuta edukitzea administrazio publikoen eta ordezkari handieneko sindikatu- nahiz enpresaburu-erakundearen artean, gizartearen hobekuntza orokorraren aldeko politika komunak taxutu eta parte hartzeko bitarteko gisa.

Garapen ekonomiko eta sozialerako funts-funtsezkoak dira elkarrizketa- eta akordio-esparruak, gobernuen eta ordezkari handieneko solaskide sozialen artekoak. Europar Batasunean, aurrerapauso guztiz nabarmenak egiten ari dira elkarrizketa iraunkorreko esparru horien instituzionalizazioan. Europa 2020 Estrategiak barnean hartzen ditu solaskide sozialak, oinarritzko parte bat direlakoan bai kontsultarako bai parte hartzeko, Europar Batasunean gobernantza publikoa eta erreforma ekonomikoak eta sozialak hobetze aldera.

Konstituzioak ordezkari handiena duten enpresa-erakunde eta sindikatuen parera goratzen du, berezkoak dituzten interesak defendatu eta sustatzeko, eta izaera horren baitan konstituzio mailako garrantzia ematen die. Agindu horren babesean, Nafarroan onetsi egin zen Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea, gizarte eragile horiekiko aitorpen formal gisa, eta, halaber, behar dituzten eremu instituzionalak ematea, berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialen defentsan eta sustapenean jardun dezaten. Defentsa horren adierazpen gorena da, hain zuzen, enplegu planak prestatzea, dokumentu horrek irudikatzen baitu enplegu eta garapen arloko politi-

ka osoa, gai horretan Nafarroako Foru Komunitateko politika markatuko duena.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana erakunde sindikalekin eta enpresa-sindikalekin adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2016tik 2019ra bitarteko enplegu plana onetsi dezan, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren barnean.

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Europar Batasunean, 2011ko apirilaren 5eko 2011/36/EB Zuzentarauaren 2.1 artikulua, gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoak, honela definitzen du pertsonen salerosketa; "pertsonak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz,

bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusua- ren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo pertsona batzuen gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helburua delarik haien esplotazioa". Gizakien salerosketa modu ohikoenetan biktimak sexu- edo lan-esplotazioarako erabiltzen badira ere, badaude beste esplotazio era batzuk, esaterako, pertsonen salerosketa giza zelula, ehun eta organoen erabilerarako, salerosketa erritu-helburuetarako, behartutako ezkontzak, haur soldaduen errekutamentua, haurrak erabiltzea delitu-jarduera txikietan, legez kanpoko adopzioak edo haurren salmenta.

Pertsonen salerosketa, esklabutzaren era moderno gisa kalifikatu dena, goraka doa Europan, eta Nazio Batuen hainbat agentziaren baiospenen arabera, 800.000 izanen lirerateke jokabide kriminal horren biktimak. Sexu-esplotazioaren biktimak emakumeak izan ohi dira, eta gizonak dira, berriz, lan-esplotazioa gehien pairatzen dutenak, estatistikei jarraikiz. Kasu batean zein bestean, haurrak dira esplotazio ororen aurrean biktima ahulenak.

Gaur eguneko testuinguruan, ugalketa artifizialeko teknika berriek galdera etiko eta juridiko berriak sortzen dituztenean, "amatasun subrogatua" edo "alokairuzko sabela" izenekoa sortu da. Horri heltzen diotenak dira era naturalean umerik sortu ezin duten bikoteak, baina baita ere pertsonak edo bikoteak, antzutasun naturalaz beste-ko arrazoi batzuegatik seme-alaba bat eduki, besterik nahi ez dutenak. Horri dagokionez, Europako Parlamentuak salatu du lotura bat dagoela amatasun subrogatuaren eta "pertsona pobre eta ahulak, askotan garapenean dauden herrialdeetatik datozenak" esplotatzearen artean (2016ko

uztailaren 5eko ebazpena, Batasuneko kanpo harremanetan pertsonen salerosketaren aurkako borrokari buruzkoa), eta eskatu du kontuan hartzeko eta ikusgarri bihurtzeko “pertsonen salerosketa eta esplotazioaren modu berriak, horietan barne ugalketa arloko esplotazioa eta jaioberrien salerosketa” (2016ko maiatzaren 12ko ebazpena, pertsonen salerosketaren gaineko prebentzioari eta borrokari buruzkoa).

Gizarteak entzun behar du umerik sortu ezin duten bikoteen asmo zilegia. Baliabide guztiak ahalbidetu behar dira, eta adopzioak, nazio zein nazioarte mailan, sarbide merkeagoa izan dezan lortu. Hala ere, esan behar da adopzioan, gurasoen eta seme-alaben arteko harreman naturala eredutzat duen filiazio era bat denez, lehen helburua dela haurrak gurasoak edukitzea, hori baita haur guztien interes gorena, eta ez alderantziz. Guztiz zilegi balira ere, helduen asmo guztiak ezin dira eskubidetzat hartu, are gutxiago ukitutako beste subjektu batzuen duintasuna eta eskubideak kaltetuta gertatzen ahal badira, bereziki seme-alaben eta emakume ahulenen kasuan.

Beste alde batetik, legeriak eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia berrienak argi uzten dute Espainian legez kanpokoak direla amatasun subrogatuaren jarduketak. Hartara, lege-iruzur garbia eginez, interesdunak “alokairuzko sabel” bat bilatzera joan ohi dira garapen bidean dauden herrialdeetara, bertan baliabide eta hezkuntza maila gutxiko emakumeak bereziki ahulak direlarik.

Kontuan hartuta 2011/36/EB Zuzentarauan, gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoan, zigorra gogortzeko aukera jasotzen dela biktima bereziki ahula denean, haurren gaineko aipu argia eginez.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan, kontzientzia soziala handiagoa sortu eta fenomenoak ikusgarriago bihurtuko dutenak, eta, delituaren prebentzio eta jazarpenerako jardunarekin batera, biktimendako laguntza eta gizarteratze programak aurreikus ditzan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, adin txikikoen estatutu pertsonala eta dagozkion eskubideak berma ditzan, amatasun subrogatuaren testuingurua ere kontuan hartuta, aipatu estatutua eta haren eskubideak kolokan jartzen baititu. Izan ere, seme-alaba helduen arteko transferentzia-akordio baten subjektu delako, ordain ekonomikoarekin edo hura gabe, zeinetan ez den agertzen haurraren eskubidea bere nortasuna eduki eta bere gurasoek zaindua izateko, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harreman naturala iraultzen duena. Adin txikiko baten adopziora eta tutoretzara iristeko ezartzen diren bermeak eta betekizun zorrotzak (esate baterako, haren jatorria ezagutzea, edo aita edo ama izaneren direnen egokitasuna) ez dira jasotzen alokairuzko sabelen kasuetan. Horrelakoetan akordio pribatu soil bat lehenesten da, zeinetan amen aldetik ezartzen den uko espresu eta atzerazina (eta kalte-ordaina, betetzen ez bada) haien seme-alaben gaineko eskubide orori, adin txikikoa eta haren eskubide oinarrizkoak babestearen interes publikoaren aurka.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behar diren baliabideak abian jar ditzan adopziora iristea arinagoa izan dadin, eta kostu gutxiagokoa, administrazioaren aldetik, ezertan ukatu gabe behar diren ebaluazioak, adopzio-gurasoen egokitasuna bermatzeko, eta gainbegira dadin nazioarteko adopzioak legezko agentzia kreditatuen bidez egiten direla.

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasuneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak 1986ko maiatzaren 16an eta 1987ko apirilaren 14an hartutako erabakien bidez, hainbat neurri ezarri ziren giza organoen ematea eta transplantea sustatze aldera. Neurri horietan ordain ekonomikoak ezarri ziren, emaileak lortu eta organoak eta ehunak ateratzeagatik. Ordan horien zenbatekoak, berriz, Osasuneko kontseilariaren foru aginduen bidez eguneratzen dira.

Gaur egun indarra duen araua Marta Vera Janín Osasuneko kontseilariak azaroaren 26an emandako 172/2013 Foru Agindua da, zeinaren bidez aldatu baitzen martxoaren 10eko 74/1990 Foru Agindua, "ordain ekonomikoen zenbatekoak eguneratzen dituen emaileak lortu eta organoak eta ehunak ateratzearen arloan". Ordain horiek ematen zaizkie organoak eman eta transplanteak egiteko programan parte hartzen duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalai, haien parte-hartzearen arabera.

Sistema hori Espainiako gainerako autonomia erkidegoetara zabaltzeko da "Iruña eredu" izeneko-

tik abiatuta. Alabaina, paradoxikoki, funtsean eta izatez altruismoa xede duen jarduera hori pizgarri ekonomikoetan oinarritzen da.

Gainera, ordain ekonomiko horiek dira Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparte ordaintzen dituen bakarrak, ordaintzeko sistema arruntean integratu gabe, beste osagarri batzuk bezala (antzinasuna, txandaketa, gauekoa, arriskuak...), eta profesionalen ekipo eta talde guztiz jakin batzuei zuzentzen zaizkie, profesionalen arteko tratu desberdina sortzeko arriskuarekin. Alderdi horren kariaz, 2009an, osasun laguntzaileen talde batek kexa bat aurkeztu zion Nafarroako Arartekoari, berdintasun tratua eskatzeko organoak ateratzeko prozesuan parte-hartzeari dagokionean, aparteko lanaldian, eta dagozkion pizgarrietan. Arartekoak, kexa horri erantzuteko, irailaren 3ko 175/2009 ebazpena eman zuen. Bertan Osasun Departamentuari gomendatzen zion neurriak hartzeko, "justifikaziorik gabeko tratu desberdina" ekiditeko.

Gure ustez, oraingo sistema ez da justua, ez ikuspuntu profesionaletik, ez eta ikuspuntu etikotik ere. Lehenbizi, uste dugu organoak eta ehunak lortu, mantendu eta ateratzea osasun profesionalen zereginaren zati bat dela, eta ez duela justifikatzen ordain ekonomiko berezien sistema bat, osagarrien sistema arruntetatik kanpo.

Bigarrenik, politika publikoen ikuspuntu etiko batetik, uste dugu Administrazioaren betebeharrak dela ematea egintza altruista gisa sustatzea, mekanismoak ezarriz, emaileen borondatezko parte hartzearekiko koherentziarekin, profesionalen laguntza solidarioa bilatzeko, bazter utzita ematea sustatzeko pizgarri ekonomikoak.

Azkenik, uste dugu Nafarroan ematearen eta transplanteen egoerak ez duela justifikatzen gastu ekonomiko berezi bat, urtero 200.000 euro inguru egiten duena. Nafarroan ematea Estatukoa baino handiago izaten zen, eta uste dugu herritarren eta profesionalen artean elkartasuna sustatu behar dela, balio etiko gisa, profesionalendako pizgarri ekonomikorik gabe. Izan ere, herritarrek pizgarri horiek ezagutuz gero, lortu nahi diren helburuen aurkakoak gerta litezke.

Horregatik guztiagatik, Nafarroan urte luzetan erroto diren ibilbide profesionala eta kultura soziala ikusirik, uste dugu ez dela justifikatzen izaera bereziko pizgarri ekonomikoen programa bat

edukitzea. Ildo horretatik, ondoko erabaki-proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela, guztiz balio handia duena giza bizitzak salbatzeko eta pertsona asko eta askoren bizi-kalitatea hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak zorionak eta eskerak ematen dizkie ehunak eta organoak transplantatzeko prozesuan ari diren eta odola, ehunak edo organoak ematea sustatzen duten profesionalei eta elkarteei, bereziki era altruistan emaille direnei edo familiartekoak emaille izateko adostasuna eskaintzen dutenei.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du organoak eta ehunak lortu, mantendu eta ateratzea lagun-

tza-prozesu arruntean sartzen den zeregina dela, eta, beraz, ez dela ordaindu behar pizgarri berezien sistema batekin. Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak premiatzen du ordain horiek arautzen dituen araudia indargabetu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, behar diren jarduketak egin ditzan ematea sustatzeko, bizidunen emateetan ahalegin berezia eginez. Gainera, sentsibilizazio sozialerako neurriak ezarri behar ditu, emateko beharrianari, bizi-testamentuaren gaineko informazioari eta bestelako batzuei begira, eta neurri zehatzak hartu behar ditu bere profesionalen prestakuntzaren eta kontzientziazioaren arloan.

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikasleen, ikastetxeen, auzoen eta Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen beharrei atxiki diezaien Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak finkatzeko eta banatzeko beharrezkoa den politika.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ikasleen, ikastetxeen, auzoen eta Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen beharrei atxiki diezaien Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak finkatzeko eta banatzeko beharrezkoa den politika.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea mozioa, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du heldu den urriaren 24ko Mahaiaren izapidetzeko, eta azaroaren 3ko Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko. Mozioa jabeldura baten ondorio da (9-16/ITP-00017), eta horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikasleen, ikastetxeen, auzoen eta Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen beharrei atxiki diezaien Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak finkatzeko eta banatzeko beharrezkoa den politika.

Hezkuntzaren sinonimoa dugu askatasun pertsonala sustatzea eta onura publikoarekin eta interes orokorrekin bateragarri egitea, eta ekitatea eta bikaintasuna antonimoak ez direla bermatzea, guztiontzat den eta guztiak hezten dituen kalitatezko eskola baten alde. Gaur egungo hezkuntzaren funtsezko helburua da benetako aukera berdintasuna lortzea eta bereizkeria mota oro desagerraraztea. Horregatik, oinarritzko egintza

baterantz jo behar da: neurriak hartzeko konpromisoa, ikasleak ikastetxeen artean modu orekatuan bana daitezzen bermatze aldera.

PISA 2012 txostenak berretsi egin zuen alde aurretik bagenekiena, irizpide sozialek, eta ez irizpide akademikoek bakarrik, eragin handia dutela ikastetxea aukeratzekoan, bereziki irakaskuntza pribatua oso hedatuta dagoen herrialdeetan. Horretatik sortzen den dinamika, administrazioak kontrolatzen ez badu, eskolatzeko desberdina eragiten du gizarte sektoreen artean, eta behartsuenak kontzentratu ohi dira zenbait ikastetxetan, haietarik gehienak publikoak.

LOE zein LOMCE, 84. eta 109. artikuluetan, "ikasleen banaketa egoki eta orekatu" baten alde agertzen dira, baina praktika politikoak eta administrazioak maiz ahazten dute hori. Eta 122. artikulua honela dio: "Hezkuntza-administrazioek baliabide-zuzkidura handiagoak esleitu ahal izango dizkiete ikastetxe publiko edo itunpeko ikastetxe pribatu jakin batzuei, hori eskatzen duten proiektuen arabera, eta eskolatzen dituzten ikasleen premia bereziko egoerak kontuan hartuta". Landa-eremu askotan, non ikastetxerik gehienak publikoak baitira, ez dago behar adina tresna, ikastetxe horiek beren gain hartzen dituzten ikasleen hezkuntza-premiak konpentsatzeko.

Funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztiak beren gain hartu behar dute ikasle guztiak eskolatzeko erantzukizun soziala, zatikatze soziala ekiditeko. Ez dugu onartzen inklusioa ez den hezkuntza-eredu bat, XXI. mendeko gizarte-ereduaren aurkakoa delako. Ildo horretatik, ikastetxeek gizartearen konposaketa islatu behar dute, eta herritar guztientzat irekita egon, salbuespenik gabe.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak eta baliabide material zein ekonomikoak Nafarroako Foru Komunitateko auzo eta eskualdeen, ikastetxeen eta ikasleen beharren arabera banatzeko testuinguru horretan, funtsezko garrantzia hartzen du aniztasunarekiko arretak, gaur egungo hezkuntza-politikaren oinarriko zutabea baita. Arreta hori ematerakoan kontuan hartu beharreko printzipioak dira normalizazioa, inklusioa eta desberdintasunen konpentsazioa. Beraz, hezkuntza premia bereziak goiz atzemateak lehentasuna izan behar du, ikasle guztien garapen onena lortzeko.

Denok dakigunez, Nafarroako hezkuntza sistemaren txostenek adierazten dute ikasturte ikasturte handituz doala ikasgeletan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kopurua, zeina, guztira, nabarmen igo baita. Hezkuntza premia berezien

detekzioa sustatu da, baina ez, neurri berean, ebaluazioa eta esku-hartzea. Estatistika handitu egin da, baina ez dago hain argi erantzuna hobetu ote den.

Ikasle horiekiko esku-hartzea hobetzeko, beharrezkoa izanen da hezkuntza arretako neurriak hobetzea, horiek hobetzen dituzten protokoloak ezartzea, araudia sustatu eta hobetzea –zuzendaritzak eta ikuskatzaileak jarraipena eginenez–, eta Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetan sentsibilizazioa lantzea; izan ere, azken hori araututa badago ere, etapa horietan tradizioz ez ohi zaie arreta bera eskaintzen beharizan horiei.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak eta, bereziki, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek hitz egiten dugunean, haien eskolatzeko zehazteko orduan adierazi egiten dugu beharrezkoa dela kalitateko hezkuntza-arreta bermatzea beraiei, ikastetxeetan dauden giza baliabide, baliabide material eta antolaketa baliabideen arabera, ikasle horiek dagokien etapako hezkuntza-helburuak lortze aldera.

Azken batean, asmoa oreka lortzea da, alde batetik, oinarriko inklusio- eta normalizazio-printzipioen eta, beste aldetik, ikaslearen beharrezkin bat datorren hezkuntza-erantzuna emateko funtsezko printzipioaren artean, eskola-ikaskuntzei dagokienez. Testuinguru horren barnean, baliabide didaktikoen garrantziari helden zaio. Baliabide didaktikotzat jotzen dira prestakuntza-prozesua hobetzea eragiten duten esku-hartze eta laguntza guztiak, bai eta prozesu hori errazten duten baliabide pertsonalak, teknikoak eta didaktikoak ere.

Alde horretatik, aniztasunarekiko arretaren printzipioa azken hamarkadetan sozialistek sustatutako hezkuntza-legeetan agertu izan da, eta ikastetxeetan modu integratuan heldu izan zaio, bai eta programa berezien bidez ere, azken urteotan indarrean egon diren hezkuntza-legeen arabera sakontasunarekin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza Departamentuko giza baliabideak eta baliabide material zein ekonomikoak egonkortzeko eta banatzeko politika bat atxiki diezaien ikasleen, ikastetxeen eta auzo eta eskualdeen beharrezkinei, honako jarduketan hauen bidez:

a) Baliabide gehigarriak ematea ikastetxeei, dauden eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoen eta haien ikasleen familia motaren arabera.

b) Hezkuntza proiektuan sartutako ikastetxeetako irakasleen plantillak eta irakaslez besteko laguntzak indartzea eta bermatzea, eta ratioak jaitea konplexutasun handiko ikastetxeetan eta sozioekonomikoki ahulen diren eskualdeetako ikastetxeetan, hala behar denean.

c) Mekanismoak ziurtatzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko orekatu bat bermatzeko, baliabide publikoek finantzatzen dituzten ikastetxe guztien artean.

d) Sozialki kaltetutako ikasleei eta ikastetxeei buruzko datuak, adierazleak, azterlanak eta ebaluazioak, aldizkakoak, prestatzea eta prestaketa eta argitalpena ahalbidetzea.

e) Prestakuntza eredu inklusibo batean eta eredu inklusibo baterako, irakasleendako hasiera-

ko eta etengabeko prestakuntza-plan berezien bidez, finantzaketa berezia izanen dutenak.

f) Premia bereziak dituzten ikasleen gurasoen edo tutoreen parte-hartzea sustatzea, haien hezkuntza beharizanen ebaluazioan eta kasu bakoitzean ezartzen diren hezkuntza neurrien prestaketan, aplikazioan, berrikuspenean eta ebaluazioan.

g) Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeetarako erregelamendu organiko bat onestea.

h) Hezkuntza publikoko behar adina eremu eskaintzea, ikastetxe publikoetan eskolatzeko eskaera guztiari erantzun ahal izateko.

Iruñean, 2016ko urriaren 21ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, ETAk behin betiko su etena iragarri zueneko 5. urteurrenaren karietara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere poztasuna adierazten du, biktima guztien oroimenean eta omenaldian oinarritutako bizikidetasunezko etorkizun baten aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, ideia politikoak, tolerantzia oinarri, askatasunean eta printzipio demokratikoekiko errespetuan defenditzen jarraitu ahal izanen diren etorkizun baten aldekoa, zeinetan ETAk bere armagabetzea gauzatuko baitu.”

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ETA banda terroristak 40 urtean zehar egindako hilketak, zaurituak, bahiketak eta estortsioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu ETA banda terroristak 40 urtean zehar egindako hilketak, zaurituak, bahiketak eta estortsioak.

2. Nafarroako Parlamentuak ETA banda terroristari exijitzen dio desegin dadin, armak baldintzarik gabe eman ditzan, egindako kaltea aitortuz eta biktimei barkamena eska diezaien.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak, Foruzaingoak, bizkartzainek eta Estatuko segurtasun kidego eta indarrek, baita Frantziakoek ere, egindako lana

ETAren aurkako borrokan eta banda terroristak hiltzeari utz ziezaion laguntzen.

4. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta aitortza adierazten dizkie ETAren terrorismoaren biktimei guztiei.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egiatan aplikatu dezan Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legea, eta ikastetxeetan programa bat ezar dezan, ETAren terrorismoak iraun zuen 40 urteetan Espainian eta Nafarroan egiaz gertatutako azalduko duena.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Albak atzerritarren internamendu-zentroei buruz egindako adierazpenak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Albak atzerritarren internamendu-zentroei buruz egindako adierazpenak, eta eskatzen dio jendarean zuzendu ditzan; izan ere, Parlamentuak uste du adierazpen horiek oinarritzeko eskubideak pertsona guztientzat defendatzearen aurkakoak direla, horien jatorria zein ere den.

2. Nafarroako Parlamentuak espero du Espainiako Gobernuak atzerritarren internamendu-zentroak laster ixtea, “eskubiderik gabeko” espazioak direlako, espetxe batzuk non, halere, bertan dau-

denen adierazpen askatasuna murrizten baitute; zentro horietan ez dagoelako gutxieneko bermerik han barruan giza eskubideak betetzen direla ziurtatzeko; eta falta administratibo soil batengatik 60 egunera bitarte giltzapetzea anomalia demokratiko bat delako.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoak diren azalpenak eman behar direla Alucheke atzerritarren internamendu-zentroan protesta egin zuten pertsonen aurkako tratuzko salaketak direla-eta, zeinak Madrileko SOS-Arrazakeria elkarteak eta Auzoko Koordinakundeak jarri baitzituzten.”

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren eta legea garatzen duten arau guztien aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren eta legea garatzen duten arau guztien aurka dagoela, eta orobat berresten du lege hori indargabetzeko lan egiteko konpromisoa eta guztientzako kalitatezko irakaskuntza baten aldekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu LOMCEren aurka, errebaliden aurka eta hezkuntzan murrizketak egitearen aurka Nafarroan eginen diren mobilizazioak.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, hizkuntza politikari dagokionez programa-akordioan jasotzen den toki entitateekiko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.**DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, hizkuntza politikari dagokionez programa-akordioan jasotzen den toki entitateekiko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuari sostengua eman zioten lau indar politikoek sinatu zuten programa-akor-

dioan, hizkuntza politikarako atalean, honakoak jasotzen da:

– Toki-entitateekiko lankidetzaz hitzarmenari heltzea berriro, hizkuntza-politika koordinatzeko eta optimizatzeko eta erakunde publikoen baliabideak trukatzeko, eta euskarazko udal-zerbitzuen sarea handitzea, egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko.

Nafarroako Gobernuaren eta toki-entitateen arteko lankidetzaz funtsezkoa eta estrategikoa da euskararen normalizaziorako jardunean. Ezinbestekoa da, horrenbestez, bien arteko lankidetzaz hori hitzarmen egoki eta adostu baten bitartez finkatzea, eta lankidetzaz egonkortasuna eta sendotasuna ematea.

Hori guztia kontuan hartuta,

Zer urrats eman ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki-entitateekiko lankidetzaz hitzarmenari berriz heltzeko? Nola eta zertan oinarrituta antolatu eta bideratu da bi aldeen arteko hitzarmena lantzeko prozedura? Zertan da une honetan lankidetzaz hitzarmena berreskuratzeko prozesua?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako Gobernuak bere irudi korporatiboan, komunikazioetan, seinaleketan eta dokumentuetan euskararen presentzia eta erabilera handitzeko egindako urratsei buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak bere irudi korporatiboan, komunikazioetan, seinaleketan eta dokumentuetan euskararen presentzia eta erabilera handitzeko egindako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuari sostengua eman zioten lau indar politikoek sinatu zuten programa-akordioan hizkuntza politikarako atal bat jaso zen. Testuan, besteak beste eta hitzez hitz, honakoak esaten dira:

– Foru-erakunde publikoen irudi korporatiboan euskarak presentzia egokia izan dezan ziurtatzea.

– Administrazioaren esparruan herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Aldaketaren gobernuak abiatu zenetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, herritarrekiko harreman zuzenean eta gobernuaren irudi korporatiboan funtsezkoak eta inpaktu handikoak diren hainbat ataletan, inprimaketan, komunikaziotan, seinaleketan... euskararen presentzia oraindik ere hutsaren hurrengo edo oso eskasa da: Nafarroako Gobernuaren webgunea, hainbat departamentutan herritarrekiko harremanetan egunero erabiltzen diren inprimaki-ereduak, Nafarroako Gobernuaren albisteen buletina, errepideetako eta bestelako seinaleak eta errotuluak...

Euskalgintzatik eta herritarren aldetik, berriz, Nafarroako Gobernuarekiko komunikazio eta harreman horietan euskararen presentzia eta erabilera handitu dadin eta berma dadin hainbat eskaera egiten ari da, publikoak nahiz pribatuak.

Horiek guztiak kontuan hartuta,

Zein dira Nafarroako Gobernuak aurreikusita dituen urratsak bere irudi korporatiboan, komunikazioetan, seinaleketan eta dokumentuetan euskararen presentzia eta erabilera handitzeko? Ba al dauka Nafarroako Gobernuak, bere departamentu ezberdinetan, epetan zehaztu daitekeen programaziorik urrats horiek egiteko? Eta, hala bada, eman beharreko urratsetan lehentasunak ezartzeko irizpiderik finkatu al du?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroan enpresa-konfiantzaren indizea jaitsi izanari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan enpresa-konfiantzaren indizea jaitsi izanari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Estatistikako Institutu Nazionalak oraintsu eman ditu argitara Enpresa-konfiantzaren adierazle harmonizatuari buruzko 2016ko laugarren hiru-hileko datuak.

Espanian, indize hori % 0,2 igo da; Nafarroan, aldiz, % 3,1eko bat-bateko jaitsiera gertatu da; halatan, Espainian datu okerrenak izan dituztenen artean bigarrenak gara.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du enpresa-konfiantzaren jaitsierari buruz eta jaitsiera horrek Nafarroako Foru Komunitatearen ekonomian eta irudian daukan eraginari buruz?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, amatasun eta aitatasun baimenen gaineko zenbait neurri Nafarroako legedira eramateko moduari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, amatasun eta aitatasun baimenen gaineko zenbait neurri Nafarroako legedira eramateko moduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Diputatuen Kongresuak legez besteko proposamen bat onetsi du, Espainiako Gobernua premiatzen duena lan arloko legedian amatasun eta aitatasun baimenen besterenezintasuna eta ekiparazioa jaso ditzan, programa-akordioan berdintasunari dagokionez jasotakoa (23. eta 25. pun-

tuak) eta Nafarroako Parlamentuak 2016ko martxoan onetsitakoa betez.

Nafarroako Gobernuak nola ekarriko du neurri hori gure Erkidegora, arlo horretan Nafarroak dauzkan eskumenen esparruan? Jasoko al da neurri hori Administrazio Publikoen zerbitzuko Lan-

gileen Estatutuaren etorkizuneko erreforman, Kontratu Publikoari buruzko Legean jaso beharko diren klausula sozialetan edo Nafarroako bestelako lege edo xedapenetan?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Martzillako eta Otsagabiko egoitzetako aldi baterako egonaldiko tokiei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Martzillako eta Otsagabiko egoitzetako aldi baterako egonaldiko tokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Moreno andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2016ko martxoaren 3ko Osoko Bilkuran, Otsagabiko eta Martzillako egoitzekin hitzarmena sinatzeari buruzko galderari erantzunez, Eskubide Sozialetako kontseilari Laparra jaunak adierazi zuen beste aukera batzuk aztertuko zituztela –hain zuzen ere, aldi baterako egonaldiak– egoitza horien bideragarritasuna bilatzeko.

– Egoitza horietako bakoitzak aldi baterako egonaldietarako zenbat toki jaso ditu martxoaren 3tik gaur arte? Zenbat denborakoak izan dira egonaldiak?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura

Galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeke arrazoiei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeke arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mutiloako San Pedro ikastetxe publikoa delata, Hezkuntza Departamentuak zergatik baztertu du departamentu horrek planteatutako lehen aukera (egungo ikastetxea handitzea), azkenik ikastetxe berri bat eraikitzearen aldeko apustua egiteko?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Erriberara Nafarroako Ubidearen bidez ustez helduko den ur emariari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberara Nafarroako Ubidearen bidez ustez helduko den ur emariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak asmorik al du, egiten ari den txostenean, Nafarroako Erriberara Nafarroako Ubidearen bidez helduko zela aurreikusitako ur emariaren ehuneko ehun bermatzeko?

Tuteran, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, iragarri den Familiari laguntzeko planari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, iragarri den Familiari laguntzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak noiz aurkeztuko du Familiari laguntzeko Plana, zeina jardunaldi bazuetan iragarri baitzuen, apirilaren 15ean?

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean egin nahi den bereizketari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean egin nahi den bereizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Ikusita Etxebizitzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena, zeina 2016ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran aintzat hartu baitzen, honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, goian azaldutako gaiaren honako alderdiei buruzkoa:

1. Alokairu-errentarako laguntzak IPREMek neurtutako dirusarrera-mailaren arabera direnez, zergatik egiten da bereizketa alokairu babes-tua lortzen duten gizarteratze-errentaren jasotzaileen eta gainontzeko herritarren artean, errentarako dirulaguntzak jasotzeari begira?

2. Aurreikuspen horrek ba al du inplizituki inolako konnotazio gehigarririk?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoan oinarrituta, eta

Ikusita Etxebizitzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena, zeina 2016ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran aintzat hartu baitzen, honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, goian azaldutako gaiaren honako alderdiei buruzkoa:

1. Etxebizitzaren arloaz arduratzen den kontseilariak zergatik uste du Nafarroan bizi ez direnek eta bertan bizitzen urteak daramatzatenek aukera berberak eduki behar dituztela etxebizitza bat erosteko, alokatzeko edo zaharberritzeko orduan?

2. Zure ustez, nafarrek ordaintzen dituzten zergek lehentasunez kasu eman behar al diete beste erkidego edo herrialde batzuetako herritarren etxebizitza-beharrizanei, gure lurrian sustrairik gabekoenei, nahiz eta iritsi berriak izan?

3. Kontuan hartu al duzu neurri horren iraunkortasuna? Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira, zer esan nahiko luke gizarteratze errentaren balizko 100.000 jasotzaile berri, Nafarroan orain bizi ez direnak, erakartzeak, honako kapitulu hauei dagokienez:

a. Foru Administrazioako langile-kopurua handitzea.

b. Gizarteratze errenta.

c. Osasungintza.

d. Hezkuntza.

e. Etxebizitza.

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 37/2010 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ezesten duen 000203/2011 epaiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 37/2010 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ezesten duen 000203/2011 epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakizkion:

– Hezkuntzako kontseilariak ezagutzen al du bi mila hamaikako maiatzaren hamaseiko 000203/2011 epaia, zeinaren bidez ezetsi egin baitzen Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 37/2010 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua?

– Zer iritzi du horretaz?

Corellan, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du berritu Xabierko Udalarekiko hitzarmena, Xabierko Gazteluaren inguruak mantentzeari buruzkoa?

Gobernuaren ustez, Xabierko Gazteluaren inguruak behar bezala daude?

Corellan, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión:

Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzari honako eskumen hauek esleitzen dizkio Herri-tarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak, 129/2015 Foru Dekretuaren arabera:

1. Europar Batasunaren aurrean Nafarroaren interesak ordezkatzea, eta horiek sustatu eta babestea.

II. Nafarroako Foru Komunitateko sektore publiko eta pribatuarentzat aukerak aktiboki bilatzea enpresaren eta finantzen arloan.

III. Nafarroako Foru Komunitatea atzerrian sustatzen eta proiektatzen laguntzea.

Eskumen horiek kontuan hartuta, Gobernuarentzat ez al da lehentasun bat bitartekoak bilatzea ordezkaritzaren web-orria ingelesera itzultzeko eta, halatan, Bruselan Nafarroaren interes sozioekonomikoak sustatzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzaren arloaren gaineko informazio osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Herritarrentzako etxebizitzaren arloko laguntza-neurriak ezartzeko Foru Lege proposamena izapidetzera onartu denez, eta proposamena hobeki baloratzeko, gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

1. Testu horren eragin ekonomikoaren balorazio-txostena lehenbailehen igortzea; izan ere, lau alderdien eledunak proposamena aintzat hartzea onetsi zen Osoko Bilkuran adierazi zuenez, foru lege proposamenaren testuarekin batera aurkeztua zen.

2. Herritarren parte-hartzeari buruzko txostena, zeina foru lege proposamena izapidetzerantz aurkeztu aurretik egin baitzen, Eskubide Sozialetako kontseilariaren arabera.

Iruñean, 2016ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, eraikinak eta etxebizitzak zaharberritzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, eraikinak eta etxebizitzak zaharberritzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Herritarrentzako etxebizitzaren arloko laguntza-neurriak ezartzeko Foru Lege proposamena izapidetzerantz onartu denez, eta proposamena hobeki baloratzeko, gai horren honako alderdiei

buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan: eraikinak eta etxebizitzak zaharberritzeko jarduketa babesgarrien etxebizitza bakoitzeko batez besteko kostua.

a. Bizitegi-eraikin baten egitura- edo funtzio-egokitzapena, edo biak.

b. Bizitegi-eraikin baten inguratzaileko obrak, energia-kontsumoa aurreztekoak.

c. Araudi indardunari egokitzea uraren, gasaren, elektrizitatearen, antena kolektiboaren, sutearen aurkako babesaren, aireztapenaren, zaraten eta saneamenduaren arloetan, eta eraikinari iraunkor-ki gehitutako obra-unitateen bidezko berokuntza-instalazioa.

d. Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak lortzeko edo hobetzeko obrak.

e. Irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko baldintzak lortzeko obrak.

2. Erreformaren helburuak, zaharberritzei dagokienez babes daitezkeen jarduketentz gutxienez muga 2.000 eurora jaistean: zer obra-mota hartuko dituzten 2.000 eurotik 6.000 eurora bitarteko espediente-mota hauek, zer ehunekotan, arestian azaldutako moten arabera.

Iruñean, 2016ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, osasun-langileei egindako eraso fisikoak areagotu direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer neurri hartuko ditu Nafarroako Ospitaleguneko, Tuterako eta Lizarrako osasun-langileei, bereziki larrialdiz erbitzuetan, egindako eraso fisikoak areagotu izanaren aurrean?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Irurtzunen industriarako lurzorua erosteari buruz Nafarroako Gobernuak emandako informazioa ikusita, gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Salmentarako edo sustapenerako erreserban dagoen industria-lurzorua azalera (erreserban baldin badago, lurzoru urbanizaezina edo landaluz), NASUVINSA enpresaren titulartasuneko, eta horien kokalekua, herriz herri.

2. Aipatutako lurzorua unitate-balioa, sozietatearen onetsitako azken kontuen balantzean, honako egoera-mota hauen arabera:

1. Salmentarako edo sustapenerako erreserban dagoen industria-lurzorua azalera (erreserban baldin badago, lurzoru urbanizaezina edo landaluz), NASUVINSA enpresaren titulartasuneko, eta horien kokalekua, herriz herri.

a. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua.

b. Urbanizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua.

c. Eraiki gabeko lurzoru urbanizagarria.

d. Eraikitako lurzoru urbanizagarria.

3. Irurtzunen erositako azalera, operazioaren prezioa guztira, eta erosketatik heldu diren konpromisoak, ondorio ekonomikoak dituztenak; zehazki, erositako lurra berrurbanizatzearen kostua.

4. Irurtzuneko lurzoru hori hirugarrenei saltzetik heldu den balioaren zenbatespena edo konpromisoak.

5. Lurzoru horren salmentarako aurreikuspena, denboran.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas SAn erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabiltzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduari 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzundakion:

162. aldizkaria - 2016ko abuztuaren 23a

1. Nafarroako Foru Komunitatea

1.7. Bestelakoak

2016ko abuztuaren 23ko 162. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 233E/2016 Ebazpena, abuztuaren 2koa, Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Olaztiko udal mugapean porlana fabrikatzeko instalazio baten Ingurumen baimen integratua

eguneratzen duena. Instalazioaren titularra Cementos Portland Valderrivas SA da.

Ebazpenean adierazten denez, instalazio horrek ingurumen baimen integratua du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren ekainaren 6ko 302/2007 Foru Aginduaren bidez emandakoa, eta Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 22ko 218E/2014 Ebazpenaren bidez eguneratua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak azaroaren 24an emisio industrialei buruz onetsitako 2010/75/EB Zuzentaraura egokitzeko xedearekin.

Era berean, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 855/2011 Ebazpenaren bidez, Ingurumen baimen integratua aldatu zen "landarezko biomasaren hondakinen balorizazio energetikoa" izeneko proiektua gauzatzeko; Nafarroako Gobernuak 2013ko urtarrilaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, "Olaztiko zementu fabrika erregai alternatiboaren balorizazioa egitea" izeneko Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala (UPrS) onetsi zuen eta ingurumen baimen integratua eman zitzaion; eta, azkenik, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren abuztuaren 22ko 1553/2013 Ebazpenaren bidez, Ingurumen baimen integratua aldatu zen magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzitzeko.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 38E/2015 Ebazpenaren bidez, iraungitzaletan da Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 855/2011 Ebazpenaren bidez baimendutako aldaketa; Nafarroako Gobernuak 2015eko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Cementos Portland Valderrivas SAn "Olaztiko

zementu fabrika erregai alternatibo baten balorizazioa egitea" izeneko proiekturako emandako Ingurumen baimen integratua iraungitza deklaratu zuen"; eta, azkenik, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren azaroren 25eko 197E/2015 Ebazpenaren bidez, iraungitza jotzen da Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren abuztuaren 22ko 335E/2013 Ebazpenaren bidez baimendutako aldaketa.

Aipatutako ebazpen horiek ikusita, bereziki, 233E/2016 Ebazpena, abuztuaren 2koa, Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Olazti udal mugapean porlana fabrikatzeko instalazio baten ingurumen bai-

men integratua eguneratzen duena –instalazioaren titularra Cementos Portland Valderrivas SA da–, honako galdera hau egiten dugu:

Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak abuztuaren 2an emandako 233E/2016 Ebazpenaren bidea egindako eguneratzearen arabera, Cementos Portland Valderrivas SAK erregai gisa hondakinak edo hondakinetatik heldu den erregaia erabil al dezake Olazti plantan?

Iruñean, 2016ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, gaixorik edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak zergatik ez du egin gaixorik dauden edo suspertzen ari diren ikasleentzako etxeko hezkuntza-laguntza finantzatzeko laguntzen deialdia, funts publikoekin sostengatutako Nafarroako ikastetxeetako lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeetarako?

Corellan, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak abian ez jartzeko eta gehiegi atzeratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer arrazoi egon da aniztasunarekiko arreta arautzen duen foru araudian jasotako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan abian ez jartzeko edo gehiegi atzeratzeko?

Corellan, 2016ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzkoa.

ERANTZUTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako kontseilariak Parlamentuko Mahaiari eskatu dio mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzko galderari erantzuna emateko epea luza dadin, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andrearen egina.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzko galderari erantzuteko epea 2016ko azaroaren 7ra arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

